



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko urriaren 20a

104. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuarekiko zuzemenak egin ditzan, Nafarroan etxez etxeko posta banaketa indarrean dagoen eremuetatik kentzea galarazte aldera. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mendekotasunaren balorazioa egiteko taldeen osaera eta beste zenbait alderdi osagarri arautu ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroarako osasun eskualdeak berrantola ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak sina ditzan Pirinioetako Plan Estrategikoa osatzen duten udalekin, eraikinak berreskuratu eta alokairuzko etxebizitzak egite aldera. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen a kontsumo arduratsu eta kontzientearen aldeko kanpaina bat abian jar dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da apirilaren 7ko 70/2003 Foru Dekretuko 1. artikulua alda dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etorkin gazteekin lan egiten duten gizarte erakundeekiko lankidetzeta programak abiaraz ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun sistema baliatzeko berdintasunerako ekimen bat abiaraz dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Gobernu Zentralak onetsitako zeharkako zergen igoera arbuiaitzen duela. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Parlamentuan eztabaidatu eta adostu daitezzen Foru Hobetzea aldatzeari buruzko ekimen guztiak. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako dantza edo antzerki konpainia profesionali buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (8. or.).

- Galdera, jakiteko Gobernuak asmorik ote duen udalei jasan behar duten BEZ handiagoaren adinako konpentsazioen bat emateko, BEZaren tasak igoz gero, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (8. or.).
- Galdera, jakiteko noiz beteko duen Nafarroako Gobernuak nafarrek etxebizitza bat izateko duten eskubideari buruzko foru lege proiektu bat aurkezteko lege-agindua, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Txulapaingo eta Itzagako suteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, genetikoki eraldatutako laboreen kontrol neurriei, azterlanei eta hedapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuarekiko zuzemenak egin ditzan, Nafarroan etxez etxeko posta banaketa indarrean dagoen eremuetatik kentzea galarazte aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko urriaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuarekiko zuzemenak egin ditzan, Nafarroan etxez etxeko posta banaketa indarrean dagoen eremuetatik kentzea galarazte aldera".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuarekiko zuzemenak egin ditzan, Nafarroan etxez etxeko posta banaketa indarrean dagoen eremuetatik kentzea galarazte aldera

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuko Gobernuarekiko beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan, Nafarroan etxez etxeko posta banaketa indarrean dagoen eremuetatik kentzea galarazte aldera.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mendekotasunaren balorazioa egiteko taldeen osaera eta beste zenbait alderdi osagarri arautu ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko urriaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mendekotasunaren balorazioa egiteko taldeen osaera eta beste zenbait alderdi osagarri arautu ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mendekotasunaren balorazioa egiteko taldeen osaera eta beste zenbait alderdi osagarri arautu ditzan

1. a) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du askotariko alorretako profesional taldeak sortu eta edo finka ditzan. Talde horik parte hartuko dute mendekotasunaren balorazio guztietan, bai eta Banakakoaren Arreta Programaren planifikazioan, prestaketan eta ebaluazioan, persona eskatzailearen osasuna eta

alderdi psikiko, sozial eta funtzionalak baloratze aldera.

b) Banakakoaren Arreta Programaren ardatza pertsona izan behar da, hau da, pertsoneri arreta ematea eta haien beharrezkoen asetzeko kontuan hartuta pertsona horrek nola hautematen dituen. Banakakoaren Arreta Programan, familia-testuinguruak, familiak garrantzia berezia izan behar du esku-hartze psikologikoari dagokionez.

c) Ez dezagun ahaztu familiaren esparrua, gaur egun, ez dela kontuan hartzen eta ez zaiola ordezkariarik ez arretarik ematen, bere subjektibotasunetik hartuta. Horrenbestez, Banakakoaren Arreta Programa era diziplinartekoan egin behar da, erabiltzailearen eta/edo bere familiaren parte-hartzearekin; halaber, parte hartuko du kasuan kasuko oinarrizko gizarte zerbitzuko edo, pertsona hori balorazio instituzionalizatuaren xede izanez gero, zerbitzu hori ematen duen entitateko pertsona kualifikatu batek, eta horiek guztiak izanen lirarteke laguntzaren arloko edozein esku-hartzeren oinarriko osagaiak. Azkenik, Banakakoaren Arreta Programaren etengabeko berrikusketa funtsezko osagaia izan behar da; hala, beharrezko ebaluatu, helburuak egokitu eta, ondorioz, esku-hartze programak aldatuko dira.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ebaluazio talde bakoitza ondoko hauek osatua egon dadin: mediku bat, psikologi bat, gizarte langile bat, okupazio-terapeuta bat, OLT/EDU bat eta fisioterapeuta bat.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan postu horiek egonkortu ditzan, lan eskaintza publikoaren bitartez.

4. a) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du langile horien prestakuntza eta etengabeko eguneratzea susta dezan, lanbide anitzeko talde horrek diziplina anitzeko talde gisa funtziona dezan.

b) Horretarako, talde horiek, besteak beste, balorazio-tresnen erabilerari buruzko ezagutza eskuratu behar dute eta ezgaitasunaren, zahartzearen edo buruko osasunaren arloko ezagupenak gaurkotu beharko dituzte, bai eta baliabideei, zerbitzuei eta programei buruzkoak ere.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du langile horien dedikazio eskusiboa arautzen, bidezkoak diren lansari osagarriak ezarrita.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du antolamendu-sistema bat prestatu dezan, halako moduz non, ebatzitako mendekotasun gradu eta mailarekin ados ez dauden pertsonak eskatu eta mendekotasunaren balorazioa berrikusten den kasuetan, berrikuspenaren ondoriozko balorazioa eginen duena aurreko balorazioa egin zuen taldeko kidea ez baizik eta taldeko beste kide bat izanen baita, edo, etorkizunean beste talderen bat egonen balitz, hasierako taldea ez baizik eta beste talde bat izanen baita.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroarako osasun eskualdeak berrantola ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko urriaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroarako osasun eskualdeak berrantola ditzan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroarako osasun eskualdeak berrantola ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du honakoak egin ditzan:

1. Nafarroako Parlamentura igorri, urtebeteko epean, Nafarroako osasun eskualdeen antolaketa berri bat, bertan onets dadin.

2. Eskualdeen antolaketa berria egiteko, profesionalen sindikatuekin, elkarteekin eta elkargoekin lan egin beharko da, bai eta Nafarroako udal eta kontzejuetako ordezkariekin ere.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak sina ditzan Pirinioetako Plan Estrategikoaosatzen duten udalekin, eraikinak berreskuratu eta alokairuzko etxebizitzak egite aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko urriaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak sina ditzan Pirinioetako Plan Estrategikoaosatzen duten udalekin, eraikinak berreskuratu eta alokairuzko etxebizitzak egite aldera."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak sina ditzan Pirinioetako Plan Estrategikoaosatzen duten udalekin, eraikinak berreskuratu eta alokairuzko etxebizitzak egite aldera

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hitzarmenak sina ditzan Pirinioetako Plan Estrategikoaosatzen duten udalekin, horiek eraikinak berreskuratu eta alokairuzko etxebizitzak egiteko proiektuak aurkezte aldera.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen a kontsumo arduratsu eta kontzientearen aldeko kanpaina bat abian jar dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko urriaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontsumo arduratsu eta kontzientearen aldeko kanpaina bat abian jar dezan"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen a kontsumo arduratsu eta kontzientearen aldeko kanpaina bat abian jar dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontsumo arduratsu eta kontzientearen aldeko kanpaina bat abian jar dezan, murriztu, berrerabili eta birziklatzearen irizpidea oinarritzat hartuta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontsumo arduratsu eta kontzienteari buruzko gida bat argitara dezan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etorkin gazteekin lan egiten duten gizarte erakundeekiko lankidetzak programak abiaraz ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko urriaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etorkin gazteekin lan egiten duten gizarte erakundeekiko lankidetzak programak abiaraz ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etorkin gazteekin lan egiten duten gizarte erakundeekiko lankidetzak programak abiaraz ditzan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lankidetzak programak abian jar ditzan Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuaren, Hezkuntza Departamentuaren, Gizarte Gaietarako Departamentuko Gazteria sailaren

eta gazte etorkinekin lan egiten duten gizarte-erakundeen artean, kulturen arteko egokitzapena eta partaidetza soziala sustatzeko, eta, hala, gatazka sozialak sortzen dituen arazoak ekiditeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Etorkinak Artatzeko Bulegoak lankidetzak sare bat sor dezan, sistematzatu ahal izateko gazte taldeekin jarduten duten erakundeek bitartekaritza komunitarioaren alorrean egiten duten lana, halako moduz non elkarte horiek teknikak edo estrategiak eskuratu ahal izanen baitituzte, gatazkak kudeatzeko duten gaitasuna hobetze aldera.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-eremuak bila ditzan, banden auzia era orokor eta koordinatuan lantzeko, ezertan galarazi gabe Toki Administrazioak alor horretan dituen eskumenak.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du laguntza eman diezaien gazte talde horiengana hurbiltzera, horiek ikertzerara eta horietan esku hartzera bideraturiko proiektuei, taldeen artean eta gainerako herritarrekin izan daitezkeen gatazkak konpontzeko eta prebenitzeko metodo gisa.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da apirilaren 7ko 70/2003 Foru Dekretuko 1. artikulua alda dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko urriaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da apirilaren 7ko 70/2003 Foru Dekretuko 1. artikulua alda dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da apirilaren 7ko 70/2003 Foru Dekretuko 1. artikulua alda dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du apirilaren 7ko 70/2003 Foru Dekretuko 1. artikulua alda dezan –Xedea eta aplikazio esparrua–. Hona hemen lehenengo idatzatziaren testua:

“a) Nafarroako Gobernuko Gizarte Gaietako Departamentuak emandako ziurtagiriaren arabera, % 65eko edo hortik goitiko minusbaliotasuna izatea.”

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hurrengo aurrekontuetan kontusail bat sar dezan aldaketa hori gauzatze aldera.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun sistema baliatzeko berdintasunerako ekimen bat abiaraz dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun sistema baliatzeko berdintasunerako ekimen bat abiaraz dezan.”

Legebiltzarrak 2009ko urriaren 8an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Gobernu Zentralak onetsitako zeharkako zergen igoera arbuiatzen duela.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Gobernu Zentralak onetsitako zeharkako zergen igoera arbuiatzen duela.”

Legebiltzarrak 2009ko urriaren 8an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko uztailearen 4ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Parlamentuan eztabaidatu eta adostu daitezen Foru Hobetzea aldatzeari buruzko ekimen guztiak.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Parlamentuan eztabaidatu eta adostu daitezen Foru Hobetzea aldatzeari buruzko ekimen guztiak.”

Legebiltzarrak 2009ko urriaren 8an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko irailaren 11ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako dantza edo antzerki konpainia profesionali buruzkoa.*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako dantza edo antzerki konpainia profesionali buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kultura eta Turismoko kontseilariaren ustez, Nafarroan zergatik ez dago estatuan oihartzuna duen dantza edo antzerki konpainia profesionalik?

Iruñean, 2009ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko Gobernuak asmorik ote duen udalei jasan behar duten BEZ handiagoaren adinako konpentsazioren bat emateko, BEZaren tasak igoz gero.*JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Gobernuak asmorik ote duen udalei jasan behar duten BEZ handiagoaren adi-

nako konpentsazioren bat emateko, BEZaren tasak igoz gero.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ahoz erantzuteko gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, heldu den Osoko Bilkurarako.

Duela zenbait egun, Iruñeko alkateak heldu den urteko udal tasa eta zergei buruzko adierazpen batzuk egin zituen prentsurreko batean. Tesuinguru horretan, aipagai izan zuen Estatuko BEZaren balizko igoera eta horrek Nafarroan izanen duen aplikazioa. Zehazki esan zuen beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak Iruñeko Udalari konpentsazioren bat ematea, toki entitate horrek egiten dituen erosketetan jasan behar duen BEZ handiagoaren adinakoa. Halaber, Gobernuan dagoen alderdiak hori bera eskatzen duen moziorren bat aurkeztu du udalen batean.

Parlamentari honek errespetu osoa dio 1978ko Konstituzioan ezarritako udal autonomiari eta ez du ezer esatekorik prentsurreko horren edukuari buruz –nahiz eta harekin ados egon daitekeen edo

ez–, 2010erako udal tasa eta zergei dagokienez. Hala ere, gure ustez beharrezkoa eta egokia da foru erkidegoan kezka agertzea Estatuko edo Foru Komunitateko zergetan eragina izan dezakeen ororen gainean, BEZaren kasuan gertatzen den moduan. Zerga orokorra da eta haren bidez bildutakoa, bai Estatuan bai foru erkidegoan, zama orokorrak finantzatzera bideratzen da; zehazki, gizarte ongizate maila bideragarri egitera eta bermatzera, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak bezalako alorretan.

Gaurkotasun handiko ahozko galderaren testua:

BEZaren izaera eta egitura direla eta, eta ikusirik Nafarroaren eta Estatuaren arteko Itun Ekonomikoa, Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Iruñeko alkatearen adierazpenak kontuan hartu eta, BEZaren tasak igoz gero, udalei egiten dituzten erosketetan jasan behar duten BEZ handiagoaren adinako konpentsazioren bat emateko?

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, jakiteko noiz beteko duen Nafarroako Gobernuak nafarrek etxebizitza bat izateko duten eskubideari buruzko foru lege proiektu bat aurkezteko lege-agindua.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko noiz beteko duen Nafarroako Gobernuak nafarrek etxebizitza bat izateko duten eskubideari buruzko foru lege proiektu bat aurkezteko lege-agindua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion Erro Armendárizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko ahozko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena:

Nafarroako Gobernuak hamasei hilabete daromatza legeak agintzen diona bete gabe: alegia, nafarrek etxebizitza bat izateko duten eskubideari buruzko foru lege proiektu bat aurkeztu gabe.

Galdera

Noiz beteko du Nafarroako Gobernuak legeak agintzen diona?

Iruñean, 2009ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, Txulapaingo eta Itzagako suteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Txulapaingo eta Itzagako suteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 14ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du joan den uztailan Txulapainen eta Itzagan izan ziren suteei buruz (PES-234). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Txulapaingo sutea lastategi batean hasi zen; Itzagakoa, berriz, tximista baten ondorioz sortu zen.

Itzaga leheneratzeko planak hiru atal dauzka: lehena, sutearen ondoren erretako egurra erama-tea eta hondarrak kentzea; bigarrena, kaltetutako azpiegiturak lehengoratzea; eta hirugarrena, erretako aldea lehengoratzea. Azken horrek esparruak berriz landatzea ekar dezake.

Lehendabiziko atalari dagokionez, jada zuhaitzen aprobetxamendurako baldintza teknikoan orriak idatzi dira. Bigarren atalari dagokionez, berriz, txosten teknikoak ere jada idatzita dago. Hirugarren atalari dagokionez, ezin da txosten tekniko bermedun bat idatzi hurrengo udaberrian erretako eremuen birsorkuntza naturala norainokoa den baloratu arte. Bestalde, aste hauetan lehentasun erabatekoa eman zaio lehenbiziko bi atalei erantzuteari, eta hemendik aurrera behar diren bilerak egingen dira kasuko toki entitateekin, ukitutako lurak birlandatu behar izanez gero zer zuhaitz-espezie erabili zehazteko.

Nafarroako Gobernua jada lehengoratze lanak egiten hasia da.

– Altzorrizko pinudian, egun hauetan egur errea kentzeko eta hondakinak birrintzeko lanak egiten ari dira. Erretan eta Ardanazen zeuden pinudien kasuan, aurreikusita dago lanak urrian zehar hastea.

– Epe laburrean lehengoratu beharreko baso-azpiegiturei dagokionez, nagusiki itxiturei dagokionez, aurreikusita dago lan horiek aurtengo urritik azarora egitea. Itxitura-lan horiek Ardanazko kontzejuan, Itzagaondoan, Altzorrizko kontzejuan eta Idotzingo kontzejuan egingen dira.

– Etorkizuneko balizko birlandatzei dagokionez, aurreko puntuan aipatu den bezala, ezin da inongo lanik egin harik eta udaberrian baso-sistemen bilakaera aztertzen ez den arte eta erretako egurra kentzeko eta hondakinak birrintzeko lanak guztiz bukatzen diren arte. Nolanahi ere, ikuspuntu tekniko huts batetik, birlandatzerik eginez gero, egokia izanen da lurra 2010ean zehar prestatzea landaketa izerdia geraturik dagoela egin ahal izateko, ahal dela 2010ean hastekoak diren udazkenean eta neguan.

Foru arauetan ezarri bezala, basogintzaren arloan Nafarroako Foru Administrazioari dagokio suteek ukitutako alde guztiak lehengoratze lanak finantzatzea, Nafarroako aurrekontu orokorren kargura. Horrek esan nahi du Nafarroako Gobernuak % 100 finantzatuko dituela erretako esparrua lehengoratze lan guztiak.

Egur errea eta hondakinak kentzeari dagokionez, lan horiek ez dute inongo kosturik, zeren eta gastua kentze-lan horietatik lortzen diren produktuen bidez ordaintzen baita.

Baso-azpiegiturak epe laburrean lehengoratze-ari dagokionez, 22.000 euro ingurukoa izanen da kostua.

Erretako esparruak basoberritzeko lanei dagokionez, lehen esan bezala, une hauetan ezinezkoa da zenbatekoa zehaztu, zeren eta ez baitugu ezagutzen lan horiek egin beharko diren azalera-erren guztizkoa.

Agiri teknikoak idazteari dagokionez, nagusiki basoberritzeko lanez denaz bezainbatean, gutxi gorabeherako kostua exekuzio materialerako aurrekontuaren % 4 izanen da. Aurrekontu hori, ordea, gaurkoz ez dugu ezagutzen.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko irailaren 25ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, genetikoki eraldatutako laboreen kontrol neurriei, azterlanei eta hedapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du genetikoki eraldatutako laboreen kontrol neurriei, azterlanei eta hedapenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 14ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du genetikoki eraldatutako laboreen kontrol neurriei, azterlanei eta hedapenari buruz (PES-240). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroan genetikoki eraldatutako laboreen azalera, guztira, 6.235 hektarea arto eta 150 metro koadro patata hartzen ditu. Merkataritzaz besteko xedeetarako borondatezko askapenen bi jakinarazpeni dagozkie.

Nafarroako Foru Komunitateak genetikoki eraldatutako organismoen (GEO) arloan dauzkan eskumenak apirilaren 25ekok 9/2003 Legeak esleitutakoak dira. Izan ere, lege horren bidez genetikoki eraldatutako organismoen erabilera mugaturako, borondatezko askapenerako eta merkaturatzerako araubide juridikoa ezartzen da (apirilaren 26ko Estatuko Aldizkari Ofiziala), hau da, merkaturatzeaz besteko xedeetarako erabilera mugaturako eta borondatezko askapenatarako jardueren eta instalazioen baimenak (*). Bestela ere, zehapen araubidearen zaintza, kontrola eta aplikazioa ezartzen dira.

(* Kanpo geratzen dira, Estatuko Administrazio Orokorraren eskumena izateagatik, GEOekin eginiko jarduerak, sendagaietan eta pertsonentzat arriskua duten produktuetan erabiltzeko, estatu mailako ikerketa-programetan sartutakoak eta bariatateak inskribatzeko azterketa teknikoak.

Foru erkidegoak GEOekin egiten diren jarduerak baimentzearen arloan, honakoak baimendu dira:

- Erabilera mugatukok jarduerak egien direneko instalazioak: 10 (1997tik aurrera baimendutakoak).

- Erabilera mugatuko jarduerak: 13 (1998tik aurrera baimendutakoak).

- Borondatezko askapenak: 132 (1995etik aurrera baimendutakoak).

Borondatezko askapenen kasuan, sustatzaileek neurri batzuk hartuko dituzte giza osasunean edo/eta ingurumenean izan ditzaketen arriskuak saihesteko. Arto-askapenen kasuan, honakoak daude neurri horien artean:

- Isolamendurako gutxieneko distantzia, 200 metrokoa, artoa dagoen beste lursail batzuetaraino.

- Arto konbentzionaleko barrerak, gutxienez ere 4 lerrokoak, polenerako tranpa gisa.

- Material begetala in situ suntsitzea, behin entsegua bukatu ondoren.

- Geroan ager daitezkeen berazainak suntsitzea.

- Hurrengo urtean artoaz beste labore bat edo arto esperimentalak landatu eta gero suntsitzea.

Genetikoki eraldatutako patataren borondatezko askapenen kasuan, honako neurriak hartuko dira:

- Isolamendurako gutxieneko distantzia, 100 metrokoa, patata dagoen beste lursail batzuetaraino. Laborea sexualki patatatik urrun dauden landareekin inguratzen da.

- Kontrolatzen da esperimentuaz kanpoko inork landaririk ez ateratzea.

- Autoklabearekin suntsitzen dira entseguan erabili diren material begetalen hondakinak.

- Hurrengo urtean ateratzen diren kimuak suntsitzen dira.

- Hurrengo kanpainan ez da lursail berean patata ereiten.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko teknikariek kontrolak egiten dituzte alorretan, neurri horiek betetzen diren egiaztatzeko. Kontrol horien emaitzak onak dira eta momentuz ez da atzeman neurriak bete ez direnik.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko irailaren 25ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

